



Busturiko  
Udala



# Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea

EGUNA / FECHA: 6/5/2015

HASIERA / INICIO: 21:10

AMAIERA / FINAL: 21:15

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATESA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (Bildu)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Jone Miren Arrasate Urkiaga (Bildu)

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate andrea buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate andrearen aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez. De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

### 1.- Aurreko saioetako aktak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituen 2015eko apirilaren 15eko eta 22ko aktak.

### 1.º.- Acta de las sesiones anteriores.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar las actas de las sesiones de 15 y 22 de abril de 2015.

### 2.- Paresiko atsedenekuaren esleipena.-

Ikusita Udal Arkitekto Aholkulariak igorritako txostena, M. L. eskultoreak Paresiko atsedenekurako egindako proposamenari buruzkoa, bertan esku-hartze artistikoa egiteko 70.000 €-ko aurrekontuarekin (BEZ sartu gabe), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu obrak esleitzea. Alkate andreak esleipena justifikatu zuen esanez “Erein” programaren barruan diru-laguntza eman dela, udalerrriaren eremu horretan esku-hartze artistikoa burutzeko, eta gogoratu zuen M. L.ren proposamenak interes gehigarria duela, aldi berean elementu funtzionalak (jolasak, iturria, etab.) diren artelanak (eskulturak) gehitzen baititu. Bilbao andreak azaldu zuen kontrako botua ematen zuela bere ustez herrian hau baino premiazoak diren gauza gehiago zeudelako.

### 2.º.- Adjudicación del área de esparcimiento de Paresi.-

Visto el informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal sobre la propuesta realizada por el escultor M. L. para el área de esparcimiento de Paresi, mediante su recuperación a través de una intervención artística, con un presupuesto de de 70.000 € (IVA no incluido), la Junta de Gobierno Local, por dos votos a favor y uno en contra, acordó adjudicarle las citadas obras. La Sra. Alcaldesa justificó la adjudicación en base a la oportunidad que supone la subvención concedida dentro del programa “Erein” para realizar una intervención artística en esa zona del municipio, y recordó que la propuesta de M. L. aportaba un interés supletorio al incorporar obras de arte (esculturas) que a la vez son elementos funcionales (juegos, fuente, etc.). La Sra. Bilbao manifestó que votaba en contra ya que en el pueblo había otras necesidades más urgentes que ésta.

### 3.- Herriko Udalekuak 2015.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen honakoa:  
1.- Ikasleek “Herriko Udalekuak” kanpainan izena emateko epea zabaltzea, lehentasuna emanda Busturian erroldatutako adin txikikoei eta José María Ucelay Ikastetxe Publikoko ikasleei, honako tarifen arabera:

- Erroldatutakoak (2015eko urtarrilaren 1a baino lehen):
  - 50 € seme-alaba bat
  - 65 € bi seme-alaba
  - 75 € hiru seme-alaba
- Erroldatu gabeak:
  - 100 € seme-alaba bat
  - 130 € bi seme-alaba
  - 150 € hiru seme-alaba

2.- Kanpaina horretarako begiraleak hautatzeko oinarriak

### 3.º.- Herriko Udalekuak 2015.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:  
1.º.- Abrir el plazo de inscripción de alumnos para la campaña “Herriko Udalekuak” estableciendo la prioridad de los menores empadronados en Busturia y alumnos del Colegio Público José María Ucelay y fijando las siguientes tarifas:

- Empadronados (antes del 1 de enero de 2015):
  - 50 € un niño/a
  - 65 € dos hermanos/as
  - 75 € tres hermanos/as
- No empadronados:
  - 100 € un niño/a
  - 130 € dos hermanos/as
  - 150 € tres hermanos/as

2.º.- Aprobar las bases para la selección de los monitores para esa campaña que garanticen los principios de igualdad,



onartzea, berdintasun-, publizitate-, meritu- eta gaitasun-irizpideak bermatuta, eta iragarkia argitaratzea hautaketa-prozesuaren deialdia egiteko.

publicidad, mérito y capacidad y publicar anuncio convocando el proceso de selección.

#### 4.- Presapeko baratze txikiak.-

Alkate andreak jakinarazi zuen sei baratze txiki sortu direla Presapeko auzo-konposta egiteko gunean. Baratzok herritarrek erabil ditzaketen 3 bider 2 metroko esparruak dira.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen bandoa argitaratzea baratzak lantzeko interesa dutenek eskaerak aurkeztu ahal izateko, langabeei lehentasuna emanda, eta, baratze-kopurua baino eskaera gehiago egonez gero, esleipena zozketa bidez egitea.

#### 4.º.- Minihuertos en Presape.-

La Sra. Alcaldesa informó que se han creado seis minihuertos en el área de compostaje comunitario de Presape. Se trata de unos recintos de 3 por 2 metros que pueden ser utilizados por los vecinos.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó publicar un bando para que aquellas personas interesadas en trabajarlos puedan presentar sus solicitudes, dando preferencia a las personas en desempleo y, en caso de haber más solicitantes que huertas, que la adjudicación se realice por sorteo.

#### 5.- M. U. G. eta K. M. L.en idazkiak.-

Jarraian, M. U. G. eta K. M. L.en idazkiak irakurri ziren. Idatziotan pilates- eta eskulan-ikastaroetan, hurrenez hurren, baja eman dakiela eskatzen dute; kontuan hartuta ikastaroen antolaketaren gainean onartu eta argitaratu ziren arauetan ez zela zehaztu ikasleek urte osorako ematen zutela izena eta ez zenez debekatu ikasturtean baja emateko aukera (datorren urteko ikastaroak antolatzerakoan aurreikusi egin beharko da), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen aipatu bi herritarrei baja ematea.

#### 5.º.- Escritos de M. U. G. y K. M. L.-

Seguidamente se dio lectura a los escritos presentados por M. U. G. y K. M. L., solicitando que se les dé de baja en el cursillo de pilates y manualidades, respectivamente, y considerando que en las normas que se aprobaron y publicaron sobre la organización de los cursos no se precisaba que los alumnos se inscribían para todo el año ni se prohibía que durante el desarrollo de los mismos los inscritos se pudiesen dar de baja (lo que se deberá prever cuando se organicen los cursos del próximo año), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar las bajas de las dos vecinas citadas.

#### 6.- Busturiako osasun-zentroko medikuaren eta erizainaren idazkia.-

Jarraian, Busturiko osasun-zentroko mediku eta erizain M. S. M.ek eta L. O.k aurkezturiko idazkia irakurri zen, bihotz-biriketako bizkortze-ikastaroak emateko udalaren lankidetzara eskatzeko (jardueren berri emanez eta lokala utziz).

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen jarduera horietan parte hartzea.

#### 6.º.- Escrito de la médico y enfermera del Centro de Salud de Busturia.-

Seguidamente se dio lectura al escrito presentado por M. S. M. y L. O., enfermera y médico, respectivamente, del centro de salud de Busturia, solicitando colaboración municipal (mediante la difusión de las actividades y la cesión del local), para la impartición de unos cursos de reanimación cardiopulmonar.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó colaborar con esas actividades.

#### 7.- A. G. S.-L.en eskaera.-

Kontuan hartuta A. G. S.-L.ek aurkeztutako idazkia, Udalak bide publikoko kioskoen esleipen-prezioak murriztu ditzala eskatzen duena, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera ez onartzea, arrazoiak honakoak izanda: - sektoreko prezioen indizeen bilakaera aztertuta, azken urteotan ez da sumatu prezioak murriztu direnik.

#### 7.º.- Solicitud de A. G. S.-L.-

Visto el escrito presentado por A. G. S.-L. solicitando la rebaja de los precios establecidos por el Ayuntamiento para la adjudicación de los quioscos en la vía pública, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó desestimar la petición, ya que:

- analizada la evolución de los índices de precios del sector



- udalaren ordenantzetan ezarritako bide publikoa okupatzeagatik tasa ere ez da murriztu.

no se aprecia que se hayan reducido durante estos años.  
- las tasas por ocupación de vía pública establecida en las ordenanzas municipales tampoco han tenido minoración.

## 8.- Zura ateratzeko landa-bideak erabiltzeko baimena.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen zura ateratzeko landa-bideak erabiltzeko baimena ematea Maderas Arantzari, S.L.ri (3/15 Txost.), bere jabetzako "Moro" mendiari dagokiona, 1. poligonoko 6. lursaila, Goiherriko bidea erabilia, 1.406,60 estereoan, zura ateratzen hasten denean Udalari jakinarazi behar izanda.

## 8.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Maderas Arantzari, S.L. (Expte. 3/15), correspondiente al monte "Moro", propiedad de Maderas Arantzari, S.L. parcela 6 del polígono 1, utilizando el camino de Goiherri, en un número de 1.406,60 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

## 9.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten juridiko eta teknikoak ikusita, aho batez onartu zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

- 1.- K. L. A., bi bizitzako etxea eraikitzeko (3/2015 Txost.), San Kristobal auzoan (Gorritxikaleko landa-nukleoan), 201.000,00 €-ko aurrekontuarekin.
- 2.- J. R. M. I., etxearen hegoaldeko fatxada pikatu eta zarpitatzeko (13/15 Txost.), Altamira auzoko 55.eko ezkerrean, 1.870,00 €-ko aurrekontuarekin.
- 3.- G. R. O., Barri Tabernaren alde batean toldo bat, parietan frisoa eta zoruan tronadura jartzeko (14/2015 Txost.), Altamira auzoko 34.ean, 3.143,76 €-ko aurrekontuarekin.

## 9.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes jurídicos y técnicos emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en los mismos, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

- 1.º.- K. L. A., para construcción de vivienda bifamiliar (Expte. 3/2015), en el barrio de San Cristóbal (núcleo rural de Gorritxikale), con un presupuesto de 201.000,00 €.
- 2.º.- J. R. M. I., para picado y raseado de la fachada del lado sur de la casa (Expte. 13/15), en el barrio de Altamira, n.º 55-lzda., con un presupuesto de 1.870,00 €.
- 3.º.- G. R. O., para colocación de un todo en el costado del establecimiento Taberna Barri y colocación de friso en las paredes y tarima en el suelo (Expte. 14/2015), en el barrio de Altamira, n.º 34, con un presupuesto de 3.143,76 €.

## 10.- Lizentziarik gabeko obrak Altamira 67.ean.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Udal Arkitekto Aholkulariak txostena igorri duela, K. F. Altamira auzoko 67.ean (Arrigane) egiten ari den obrei buruzkoa. Txostenean esaten du, eraikinaren ondoan jarritako pergola legeztatze dokumentazioa aurkezteko eskatu bazaio ere, ez duela inolako dokumenturik aurkeztu eta, 2015eko apirilaren 29an obran ikuskaritza-bisita egin eta gero, egiaztatu ahal izan dela aurretik salatutikoz gain, badirela beste ekintza batzuk oraindik zuzendu gabeak.

Kontuan hartuta gertakari horiek ez dutela betetzen Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 1. ataleko 220. artikuluan ezarritakoa, bidezkoa da obrak berehala eteteko agintzea eta interesdunari eskakizuna egitea legez ezarritako epean dagokion baimena eska dezan.

Aipatu arauan eta aplikatu daitezkeen gainerakoetan zedatutakoa beteta eta azaldutako gertakariak aintzat

## 10.º.- Obras sin licencia en Altamira 67.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal sobre las obras que viene ejecutando K. F. en la casa n.º 67 del barrio de Altamira (Arrigane), en que manifiesta que, a pesar de habersele requerido previamente la presentación de documentación para legalizar la pérgola levantada junto al edificio, no presentó ningún tipo de documentación, y realizada visita de inspección de obras con fecha de 29 de abril de 2015, se ha podido constatar la existencia de actos que incrementan los denunciados previamente y que todavía no han sido subsanados.

Considerando que dichos actos constituyen una infracción de lo establecido en el artículo 220, apartado 1º de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, procede ordenar la suspensión inmediata de los mismos y requerir al interesado para que en el plazo legalmente establecido solicite la oportuna licencia.



hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen: Lehenik.- Espedientea irekitzea hirigintza-legezketasuna berrezartzeko, K. F. Altamira auzoko 67.ean pergola jartzeko egiten ari den lanei dagokienez.

Bigarrenik.- Baimenik gabe egiten ari diren eraikitze-lanak berehala bertan behera uzteko agintzea, obren jabeari eta gainerako arduradunei eskaera berezia eginda obrak berehala bertan behera utz ditzaten eta jakinarazita ezingo dutela berauek egiten jarraitu, dagokion udal-baimena izan ezean.

Hirugarrenik.- Eskakizuna egitea interesdunari hilabeteko epean, etetearen jakinarazpena jasotzetik aurrera, dagokion baimena eska dezan, esanbidez ohartarazita, aipatu epea baimen hori eskatu gabe edo obrak aipaturiko baldintzei egokitu gabe igaroz gero, Udalak egin beharreko lan-mota adostuko duela, interesdunaren kontura, eta behin betiko debekatuko dituela balizko erabilerak. Era berean jokatu du baimena ukatuko balitz edo berau ematea planaren edo ordenantzen kontrako balitz.

Laugarrenik.- Ekintzen arabera eta legeak emandako epea igarota, hirigintza-arauak haustea dela-eta zehapen-espedientea irekitzeko ebazpena emango da, badagokio.

En virtud a lo dispuesto en la normativa indicada y demás de aplicación y de acuerdo con los antecedentes expuestos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Incoar expediente para restauración de la legalidad urbanística, en relación con las obras de construcción de una pérgola que viene realizando K. F. en la casa n.º 67 de Altamira.

Segundo.- Ordenar la suspensión inmediata de los actos de edificación que se ejecutan sin licencia, con requerimiento expreso al dueño de las obras y demás responsables, para que procedan a la inmediata suspensión de las mismas y advertencia de que no podrá proseguirlas mientras no disponga de la correspondiente licencia municipal.

Tercero.- Requerir al interesado para que en un plazo de un mes, contado desde la notificación de la suspensión, solicite la oportuna licencia, con expresa advertencia de que, transcurrido dicho plazo sin haberse instado la expresada licencia o sin haberse ajustado las obras a las condiciones señaladas, el Ayuntamiento acordará el tipo de obra a realizar a costa del interesado y procederá a impedir definitivamente los usos a los que diera lugar. De igual manera procederá si la licencia fuere denegada por ser su otorgamiento contrario a las prescripciones del plan o de las ordenanzas.

Cuarto.- A la vista de lo actuado, y una vez transcurrido el plazo de legalización concedido, se resolverá sobre la iniciación, en su caso, de expediente sancionador por infracción urbanística.

## 11.- Lizentziarik gabeko obrak Altamira 11.eko A-n.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Udal Arkitekto Aholkulariak txostena igorri duela, Altamira auzoko 11.eko A-n lanabes-etxola eraikitzeke obrek aurrera jarraitzen dutela dioena. Udalak agindu zuen J. M. S. N. B.k 2012ko urrian hasitako obrak eteteko; jabeek geroago baimena eskatu bazuten ere, ukatu egin zitzairen.

Kontuan hartuta gertakari horiek ez dutela betetzen Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 1. ataleko 220. artikuluan ezarritakoa, bidezkoa da obrak berehala eteteko agintzea eta interesdunari eskakizuna egitea legez ezarritako epean dagokion baimena eska dezaten.

Aipatu arauan eta aplikatu daitezkeen gainerakoetan xedatutakoa beteta eta azaldutako gertakariak aintzat hartuta, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

Lehenik.- Espedientea irekitzea hirigintza-legezketasuna berrezartzeko, J. M. S. N. B. A. auzoko 11.eko A-n lanabes-etxola eraikitzeke egiten ari den lanei dagokienez.

Bigarrenik.- Baimenik gabe egiten ari diren eraikitze-lanak berehala bertan behera uzteko agintzea, obren jabeari eta gainerako arduradunei eskaera berezia eginda obrak berehala bertan behera utz ditzaten eta jakinarazita ezingo dutela

## 11.º.- Obras sin licencia en Altamira 11 A.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal sobre que continúan las obras de construcción de una caseta de aperos en la casa n.º 11 A de Altamira, iniciadas por J. M. S. N. B. en octubre de 2012, que se ordenaron paralizar desde el Ayuntamiento y para las que, posteriormente, los propietarios solicitaron licencia que fue denegada.

Considerando que dichos actos constituyen una infracción de lo establecido en el artículo 220, apartado 1º de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, procede ordenar la suspensión inmediata de los mismos y requerir a los interesados para que, en el plazo legalmente establecido, soliciten la oportuna licencia.

En virtud a lo dispuesto en la normativa indicada y demás de aplicación y de acuerdo con los antecedentes expuestos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

Primero.- Incoar expediente para la restauración de la legalidad urbanística, en relación con las obras de construcción de una caseta de aperos que vienen realizando J. M. S. N. B. en la casa n.º 11 A de Altamira.

Segundo.- Ordenar la suspensión inmediata de los actos de edificación que se ejecutan sin licencia, con requerimiento



berauek egiten jarraitu, dagokion udal-baimena izan ezean. Hirugarrenik.- Eskakizuna egitea interesdunari hilabeteko epean, etetearen jakinarazpena jasotzetik aurrera, dagokion baimena eska dezan, esanbidez ohartarazita, aipatu epea baimen hori eskatu gabe edo obrak aipaturiko baldintzei egokitu gabe igaroz gero, Udalak egin beharreko lan-mota adostuko duela, interesdunaren kontura, eta behin betiko debekatuko dituela balizko erabilerak. Era berean jokatu du baimena ukatuko balitz edo berau ematea planaren edo ordenantzen kontrakoa balitz. Laugarrenik.- Ekintzen arabera eta legeak emandako epea igarota, hirigintza-arauak haustea dela-eta zehapen-espeditentea irekitzeko ebazpena emango da, badagokio.

expreso a los dueños de las obras y demás responsables, para que procedan a la inmediata suspensión de las mismas y advertencia de que no podrán proseguirlas mientras no dispongan de la correspondiente licencia municipal. Tercero.- Requerir a los interesados para que, en un plazo de un mes contado desde la notificación de la suspensión, soliciten la oportuna licencia, con expresa advertencia de que transcurrido dicho plazo sin haberse instado la expresada licencia, o sin haberse ajustado las obras a las condiciones señaladas, el Ayuntamiento acordará el tipo de obra a realizar a costa del interesado y procederá a impedir definitivamente los usos a los que diera lugar. De igual manera procederá si la licencia fuere denegada por ser su otorgamiento contrario a las prescripciones del plan o de las ordenanzas. Cuarto.- A la vista de lo actuado, y una vez transcurrido el plazo de legalización concedido, se resolverá sobre la iniciación, en su caso, de expediente sancionador por infracción urbanística.

## 12.- D. Z. K.ren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen D. Z. K.ri baimena ematea Aingeru Bideko lokala erabil dezan, maiatza, ekaina eta uztailean, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00era, Hemingwayren bakarrizketa bat entseatzeko.

## 12.º.- Solicitud de D. Z. K.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar el uso del local de Aingeru Bide por parte de D. Z. K., durante los meses de mayo, junio y julio, de lunes a viernes, de 11:00 a 13:00 horas, para los ensayos de un monólogo de Hemingway.

## 13.- Ogia egiteko tailerra.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Ortutik Ortura elkarteari baimena ematea Larrazabaleko eskola erabil dezaten, maiatzaren 6, 7 eta 8an, ogia egiteko tailer bat egiteko.

## 13.º.- Taller de elaboración de pan.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar el uso de la Escuela de Larrazabale por parte de la asociación "Ortutik Ortura", los días 6, 7 y 8 de mayo, para la realización de un taller de elaboración de pan.

## 14.- Nepalgo lurrikara.-

Kontuan hartuta 2015eko apirilaren 25ean jazotako lurrikararen ondorioz Nepalen dagoen hondamendi humanitarioa, Alkate andreak proposatu eta Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen 600 €-ko laguntza ematea.

## 14.º.- Terremoto en Nepal.-

Ante la situación de catástrofe humanitaria en Nepal, como consecuencia del terremoto producido el día 25 de abril de 2015, la Sra. Alcaldesa propuso y la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder una ayuda de 600 €.

## 15.- Lauro Ikastolaren eskaera.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen Lauro Ikastolari baimena ematea Axpeko frontoi estalia erabil dezaten, ekainaren 11n, esparrua garbitzeko eta behar bezala uzteko baldintzapean.

## 15.º.- Solicitud del Colegio Lauro.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó autorizar el uso del frontón cubierto de Axpe por parte del Colegio Lauro de Loiu, el día 11 de junio, con la condición de que se encarguen de la limpieza del recinto y lo dejen en las debidas condiciones.

Eta besterik gabe, Alkate andreak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andreak eta egiaztatzen dudana idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que



Busturiko  
Udala



# Akta

certifico.

Alkatea/La Alcaldesa,

Idazkaria/El Secretario,

Fdo: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez